



ARESOARREN BANDERA



Doinu mota: Dantzarako doinua ("Zortzikoa").

Doinuaren jasotzaileak: Aita Donostia, J.A. Santesteban.

Bertsoaren berri

Bertso hauek kantatzen ziren "Ingurutxo" dantzatzeko, Larraungo herri dantzetan (Nafarroan). Bertsoetan Areso eta Leitzaren arteko liskarra azaltzen da.

"Haizak hi mutil mainontzi"

Doinu hau ezaguna da "Haizak hi mutil mainontzi" izeneko bertsoengatik: Xenpelar eta Muxarro bertsolariek, Errenteriako oihal fabrian, irudikatutako xextragatik.

Aresoarren **bandera**
ai, nolakoa **ote da?**
Erakustera eraman dute
erreka **aldera**
gero leitzarrak bidera
zorionak **ematera.**
Al zuenak arin joan ziran
igeri **egitera.**

